



ALBOAN

www.alboan.org

Ongizate sozialaren neurketa




GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Ongizate sozialaren neurketa



“**ALBOANek** *‘Garapenerako aldaketarako prozesuak. Hausnarketa eta praktika’* mintegi iraunkorrean sustatutako hausnarketa zabal baten parte da koaderno hau. Xedea da gaur egun gertatzen ari diren aldaketa-prozesu sozialei buruz eztabaidatzea, baita bidegabekeria eta berdintasun eza sortzen dituen logika ekonomikoa eraldatzen laguntzeko moduari buruz eztabaidatzea ere. Helburu horretara zortzi saio bideratu genituen, 2016ko otsailetik eta 2017ko otsailera bitartean. Horietan, Euskadiko askotariko esparruetako pertsonen parte-hartze paregabea izan dugu: gizarte-esparrua (ekonomia solidarioko eta nazioarteko lankidetzako erakundeak), unibertsitatea, enpresak eta Administrazioa; horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, agertutako konpromisoagatik eta lankidetzagatik”.

Koaderno honen gaia, ongizate sozialaren neurketari buruzkoa, landu zen Mintegi honen saioetako batean Susana Francoren eta Joseba Garzónen hasierako aurkezpenekin. Koadernoko hausnarketek egilearen iritzia eta parte-hartzaileen ideiak hartzen dituzte barne.

Joseba Garzón naiz, eta familia bikaina dut: seme bat eta bi alaba ditut. Emazteak, Nerek, eta biok egungo bizimodurako trebatu nahi ditugu. Nerek Herritartasuna eta Parte-hartzea Saileko zuzendaria da Oxfamen. Ekonomia eta Enpresa Zientziak ikasi ditut, eta 20 urte baino gehiago daramazkit Accenture aholkularitza-enpresan lanean; hainbat postu izan ditut, eta hainbat proiektutan hartu dut parte (nazionalak eta nazioartekoak). Horrela, globalizazioaren ondorioak lehen pertsonan bizi izan ditut. Familiarekin bidaiatzea eta leku berriak ezagutzea gustuko dut, pianoa gaizki jotzen lasaitzen naiz, eta gizarte eta garapen ekonomiari, oinarrizko errentari, kolaborazio-ekonomiari eta abarri buruz irakurtzea gustuko dut.

Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

alboan@alboan.org
www.alboan.org

Egilea: Joseba Garzón

Data: 2017

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi, S.A.

ISBN: 978-84-947153-1-0

Lege-gordailua: BI-1926-2017

Lan honen erreproduktzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| 1. Sarrera | 5 |
| 2. Ongizate sozialaren adierazleak eta hurbilketak | 9 |
| 2.1. Barne produktu gordinari buruzko gogoeta (BPGd) | 10 |
| 2.2. Adierazle «klasikoagoak»: BPGd eta NBGPren giza garapenaren indizea | 11 |
| 2.3. Ongizaterako hurbilketa «zientifikoa»: ELGaren <i>Better Life Index</i> | 13 |
| 2.4. Ongizaterako hurbilketa ez-ekonomikoa: garapen sozialaren indizea | 16 |
| 2.5. Ongizatearen dimentsio kolektibo bat: justizia sozialaren indize europarra | 17 |
| 2.6. Ongizaterako beste hurbilketa bat: <i>Oxfam Humankind Index</i> | 20 |
| 3. Hitz egiten eta sakontzen jarraitzeko gaiak | 25 |
| 3.1. Behar adina islatutako dimentsioak | 25 |
| 3.2. Behar adina islatu gabeko dimentsioak | 28 |

«Dirua da inoiz aski ez dagoen gauza bat, motibo simple bategatik: “soil” kontzeptua ezin zaio aplikatu modu logiko batean. Existitzen da osasun perfektua edo zorion perfektua, baina aberastasun perfektua, ez».

Robert Skidelsky eta Edward Skidelsky,
¿Cuánto es suficiente?: Qué se necesita para una «buena vida».
Crítica, Bartzelona, 2012, 92. or.

1. Sarrera

Koaderno honen helburua da, erabiltzen diren adierazleetako batzuen azterketaren aurkezpenean oinarrituta, gogoeta bat egitea ongizate soziala neurtzeko moduari buruz, hala neurtu behar dugunari dagokionez (eta, horrenbestez, ongizatearen zer definizio nahi dugun) nola neurtzen dugun moduari dagokionez.

Abiapuntu gisa, eta aztertutako metodoei buruzko xehetasunetan sartu aurretik, adierazle kontzeptuari berari buruzko gogoeta bat behar da.

Lehenik, jabetu behar gara adierazlearen edozein definizio diskurtso normatibo bat islatuko duela, lortu nahi den ongizatearen kontzepzio bat eta definizio bat. Ikuspuntu horretatik begiratuta, aintzat hartu beharreko kontsiderazio batzuk:


- Adierazle orok zehazten ditu, bere definiziotik abiatuta, ekimenen lehentasunak (Gobernuak BPGd-ren arabera zuzentzen baldin badira, garrantzitsuena BPGd-ren hazkundera lortzea izango da, aurreuposatuta hazkunde horrek ongizatearen gorakada paraleloa dakarrela).

- Adierazle bati begiratzten zaion bakoitzean, garrantzitsua da nork bere buruari galdetzea nork eta zer asmorekin egina den. Hemen aurkeztutako indizeetako batzuk fundazio pribatuek landuak dira, eta horiek beren helburu propioak izan ditzakete, esplizituak edo ezkutukoak.

| BPGd murrizten du | BPGd handitzen du |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> • Senide bat zaintzeko asmoz lana utzi duen pertsona. • Boluntario gisa aritzeko asmoz lanaldia murriztea. | <ul style="list-style-type: none"> • Nahita egindako sutea itzaltzea. • Obra publikoaren gainkostua, legez kontrako komisioengatik edo ondasun publikoak bidegabe erabiltzeagatik. |

- Halaber, adierazle orotan aintzat hartzen da neurtzen dena nola neurtzen ez dena (BPGd-k, adibidez, ez ditu neurtzen etxeko zaintzak, boluntarioritza lana...).
- BPGd-ren hazkunde bat pertsona aberatsenak are gehiago aberastearen eta pobreak are gehiago pobretzearen ondorio izan daiteke: «populazioa aberatsagoa da» eta «pobreak gero eta pobreagoak dira» baieztapenak egia izango dira; errealitate beraren zein alderdi komunikatu aukeratzea erabaki politikoa da. Hain zuzen ere, gaur egun gero eta gehiago zentsuratzen da informazioa, herritarrek iritzia eman dezaten nahi ez den gaiak aipatu gabe utzita. Egiten den oposizio edo debate bakarra botere estamentu batek emandako informazioan oinarrituta egiten baldin bada, hari programa eta lehentasunak markatzen uzten ariko gara, baita zer ez den lehentasunezko zat jotzen ere.

Gainera, adierazle batean beharrezkoa da, bilakaera neurtzeko, egoera une zehatz batean ebaluatzea eta denbora sailak txertatzea. Eta bilakaera hori neurtzen denean, balio absolutua bezain garrantzitsua da aldaketak zer banaketa duen neurtutako kolektiboetan. Begiratu diezaiozun grafiko honi:



Populazioaren soldataren bi banaketa hipotetiko aurkezten dira, honako balio nagusi hauekin:

| Kontzeptua | Deskribapena | A populazioa (lerro etengabea) | B populazioa (lerro etena) |
|---------------|--|--------------------------------|----------------------------|
| Batezbestekoa | Soldata guztien eta biztanleen arteko koizientea | 21.000 € | 33.000 € |
| Ertaina | Batezbesteko pertsonaren balioa; populazioaren erdia gainetik du, eta beste erdia, azpitik | 20.000 € | 20.000 € |
| Moda | Behatutako populazioaren baliorik «tipikoena» | 18.500 € | 7.500 € |

Batezbestekoari bakarrik erreparatzen badiogu, ondorioztatuko dugu B populazioa askoz ere aberatsagoa dela eta, are gehiago, batezbesteko pertsonak ere berdin irabazten duela bi populazioetan Baina moda edo populazioaren arteko baliorik tipikoena ikusten baldin badugu, A gizarteak, itxuraz pobrea goa, askoz ere banaketa berdintasunezkoagoa du, eta askoz ere populazio handiagoa batezbesteko diru-sarreretatik gertu; B gizarteak, aitzitik, diru-sarrera urriak dituen populazio handia du eta, aldi berean, batezbestekotik gorakoak dituen populazio handia, eta horrek batezbestekoa nabarmen handiagoa izatea dakar. B gizarteak 32.000 eurotik gora irabazten duten pertsona gehiago du, baina batez ere askoz ere gehiago 12.000 euro baino gutxiago irabazten dutenak, eta populazio zati handia 8.000 eurotik behera irabazten, A populazioko inor ez dagoen lekuan (horrek oinarritzko errenta dagoela islatu lezake, adibidez). Ondorioz, banaketaren berri ematen ez duen adierazle baten edozein balio absolutuk ondorio okerretara (edo interesatueta) bideratu dezake.

Hasierako ohar horren ondoren, dokumentu honek aukeratutako adierazleei buruzko komentatutako alderdi nagusiak aurkeztuko ditu, adierazgarri ez-oso bat izan arren, ongizate sozialaren neurketak izan ditzakeen ikuspuntuen erakusgarri izaten saiatzen dena, eta, ondoren, ongizate sozialaren hobekuntzara bideratutako adierazleei eta dimentsioei buruzko gogoetak, ondorioak eta proposamenak partekatuko dira, ongizate soziala pertsona guztiei bizitzea merezi duen bizitza bat bizitzeko aukera gisa definituta, hau da, pertsona orok, etorkizuneko belaunaldien ahalmenak arriskuan jarri gabe, oinarritzko premia guztiak aseta dituen eta bere bizitza-plana askatasunez gauzatu ahal dueneko gizarte bat.

2. Ongizate sozialaren adierazleak eta hurbilketak

Ongizatea neurtzeko dauden adierazle ugari eta askotarikoen artean, aukeraketa bat egin dugu, aukeraketa hori alderdi ekonomikoen zein beste alderdi sozialago batzuen erakusgarri izan dadin saiatuta; pertsona ardatz nagusi duten adierazleak, desberdinak ongizatearen dimentsio kolektiboagoak dituztenekin alderatuta; eta azken atalean, ikuspuntu berritzaileago batean, neurketa aplikatzen zaion «publikoak» berak parte hartzen du adierazlea lantzen, baita aldagai bakoitzari dagokion pisua erabakitzen ere. Horrela, honako hauek aurkitu ahal izango ditugu:

- Barne produktu gordinari buruzko go-goeta laburra.
- NBGPk (Nazio Batuen Garapen Programak) garatutako garapenaren indizea.
- Hurbilketa «zientifikoagoa», ELGaren *Better Life Index*aren bidez.
- Hurbilketa ez ekonomiko bat, Social Progress Imperative Fundazioaren garapen sozialaren indizearekin.
- Adierazle kolektiboetarako hurbilketa bat, Bertelsmann Fundazioaren justizia sozialaren indize europarrarekin.
- Parte-hartzeari buruzko ikuspuntu berritzaile bat ongizatearen definizioan berean, *Oxfam Humankind Index*aren bidez.

Adierazleen webguneen helbideak:

Human Development Report. Nazio Batuen Garapen Programa.

<http://hdr.undp.org/en/composite/HDI>

ELGaren *Better Life Index*.

<http://www.oecdbetterlifeindex.org/#/11111111111>

Garapen sozialaren indizea.

<http://www.socialprogressimperative.org/>

Justizia sozialaren indize europarra, Bertelsmann Fundazioa.

http://news.sgi-network.org/uploads/tx_amsstudies/Social-Justice-in-the-EU-2016.pdf

Oxfam Humankind Index Eskoziarako.

<http://policy-practice.oxfam.org.uk/publications/oxfam-humankind-index-the-new-measure-of-scotlands-prosperity-second-results-293743>

2.1. BARNE PRODUKTU GORDINARI BURUZKO GOGOETA (BPGD)

Gero eta eztabaidatuagoa da BPGda ongizate sozialaren adierazgarri gisa, nahiz eta esan beharrekoa den ez diegula haren aukera guztiei behatzen eta ez dugula sakontzen hura gako diren aldagaietan xehatuz errealitatea ulertzeko (genero bereizketa, adinaren araberako bereizketa, gutxiengo sozialak/kulturalak...).

Horrela, herritar gisa, eskatu beharko genuke, Espainiako BPGd-k 2016an %3ko hazkundera izan duela esaten digutenean, aldi berean, garrantzi bera ematea honetako balorazio batzuei:

- Ertainak (aintzat hartutako populazioaren %50 gainetik eta azpitik duen pertsonak) %zz egin du gora edo behera.
- Generoen araberako hazkundera eta banaketa.
- %10 aberatsenak %xx egin du gora, eta %10 pobreenak %yy egin du gora (ala behera?).
- Gorakada populazioetan, handietan eta txikietan, hiriguneetan eta landa-eremuetan.
- Gorakada adinaren arabera (erretiroa hartutako pertsonak pertsona aktiboen aurrean).

Bestalde, egia da gainera, azkenean adierazle beraren inguruko «bonbardaketa» bat gertatzen baldin bada, seguru asko herritarrek arreta galduko dutela eta, ondorioz, ez direla nahi ziren komunikazio-helburuak lortuko.

BPGari ongizatearen adierazle gisa egindako kritikaz:

Stiglitz-Sen-Fitoussi txostena.

http://eu.eustat.eus/documentos/datos/CV10_03_1.pdf

Laburbilduz, eta hau izango da dokumentu honek aldeztu nahi duen argumentu nagusietako bat, irtenbideak eskatzen du bilatzea aldi berean gizartearen konplexutasuna jasotzen duen eta ulertzeko erraza den adierazle multzo bat, eta lagungarri izan daitekeena hala erabaki politikoetarako nola

iritzi publikoari informazioa eta ezagutza transmititzeko. Eta adierazle multzo horretan bilatu behar dira, halaber, aintzat hartu beharreko funtsezko ezaugarri edo dimentsioak (adina, generoa, berdintasunezko banaketa edo ez...), gehiegizkoak izan gabe; bi alderdi horiek, hala adierazleak nola horietan neur-

tutako dimentsioak edo ezaugarriak, bata bestea bezain garrantzitsuak eta beharrezkoak dira.

2.2. ADIERAZLE «KLASIKOAGOAK»: BPGD ETA NBGPEN GIZA GARAPENAREN INDIZEA

Argi dago BPGd-aren ikuspegia partziala eta ekonomizistegia dela. Beste aldagai batzuk sartzeko lehen haustura-ahalegin arrakastatsua, giza garapenaren indizea izan zen (*Human Development Index*, edo HDI), NBGPk (Nazio Batuen Garapen Programak) duela hainbat hamarkadaz geroztik egina. Indize horrek honako adierazle hauek biltzen ditu:

- Bizi-itxaropena jaiotzerakoan, osasunaren adierazle gisa.
- Populazio helduaren alfabetizazio portzentajea eta batezbesteko eskolaratze-urteak, heziketaren adierazle gisa eta, zeharka, etorkizunari begirako aukeraberdintasunaren neurri gisa.
- BPGd per capita, bizitza duina izateko behar diren baliabide ekonomikoen erabilgarritasunaren adierazle gisa.

Aldagai horiek ondo islatzen dituzte edozein pertsonaren motibazio nagusiak. Hain zuzen ere, gero ikusiko dugun bezala, adierazle horiek ongizate soziala neurtzeko ahalegin gehienen parte dira eta aintzat hartzen dira horietan.

Azken emaitza, hiru adierazleen batezbesteko geometriko bat da. 2010. urtetik aurrera, aldagai interesgarri bat txertatu da, *Inequality HDI* (IHD) deitua, zeinak ratio bera lortzea duen helburu, baina ez gizarte osoarentzat, batezbesteko pertsonarentzat baizik. Batezbesteko indibiduo horren eta gizarte osoaren arteko desberdintasunak herrialdeetako desparekotasunari buruzko azterketa konparatiboa egiteko aukera ematen du, taula erakusgarri honetan ikusten den bezala.

| HDI, desberdintasunaren arabera doitu, 2015 (IHDI) | | | HDI 2015 | | |
|--|---------------------|-------|---------------|--------------|-------|
| Maila | Herrialdea | IHDI | HDiren balioa | HDiren maila | Aldea |
| 1 | Norvegia | 0.898 | 0.949 | 1 | 0 |
| 10 | Finlandia | 0.843 | 0.895 | 23 | 13 |
| 12 | Eslovenia | 0.838 | 0.890 | 25 | 13 |
| 14 | Txekiar Errepublika | 0.830 | 0.878 | 28 | 14 |
| 19 | Estatu Batuak | 0.796 | 0.920 | 10 | -9 |
| 20 | Eslovakia | 0.793 | 0.845 | 40 | 20 |
| 21 | Japonia | 0.791 | 0.903 | 17 | -4 |

HDIak neurtu al dezake, berak bakarrik, herrialde baten giza garapenaren maila?


Ez. Giza garapenaren kontzeptua askoz ere zabalagoa da HDIak edo Giza Garapenaren Txostenean konposatutako beste edozein indizek (HDIa desparekotasunak, genero-garapenaren indizeak, genero-desparekotasunaren indizeak eta pobrezia multidiziplinarraren indizeak doitu) islatzen duena baino. Indize konposatuak giza garapena neurtzeko tresna espezifikoak dira, aldaketa zehatz batzuetan zentratuak. Giza garapenaren ebaluazio integralago baterako, giza garapenaren beste adierazle batzuk analizatu behar dira, bai eta indizea nola lantzen den azaltzen duen txostenaren eranskin estatistikoan aurkeztutako informazioa ere (ikus 2016 txostenaren eranskina: http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr2016_technical_notes.pdf).

Berriro planteatzen da erabaki politiko bat: zer komunikatu eta zer ez. Zein izan beharko luke, adibidez, programa politikoa AEBn? Lan egin gora egiteko edo HDIren 10. postuari eusteko, ala IHDIko 19. postua hobetu? Zerbait gertatuko litzateke HDIa argitaratzeari utzi eta IHDIa baino izango ez baldin bagenu? Izan al daiteke helburu politiko bideragarria IHDIa hobetzea, horren ondorioz HDIen posturen bat galdu arren? Eta ranking bat egiten baldin badugu, adibidez, bigarren dezilaren hasieran dagoen pertsonarengandik abiatuta (adierazlean populazioaren %20 azpitik eta %80 gainera duen pertsona)?

NBGPn adierazle gehiago garatu beharraz jabetuta daude, bai eta alderdi gehiago kontuan hartu beharrez ere. Orrialdean bertan (<http://hdr.undp.org/en/>) HDIak zer muga dituen aitortzen da.

2.3. ONGIZATERAKO HURBILKETA ZIENTIFIKOA: ELGAREN *BETTER LIFE INDEX*

Ongizatea neurtzeko egindako jauzia izan daitekeen hurrengo urratsean, ELGAK (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak) indize erantsia garatu du, «bizitza hobea» baten definiziorako gaketzat jotzen diren aldagaiak batzen ahaleginduta. Nahiz eta adierazle asko izan, aurkezpen grafikoak multzo osoa eroso bistartzeko aukera ematen du (gomendagarria da webgunea bisitatzea, <http://www.oecdbetterlifeindex.org/>; dimentsioen «lore» itxurako aurkezpenak zenbaki batean ezin laburtu den, eta seguru asko zenbaki batean laburtu beharko ez litzatekeen, aberastasun bat txertatzen du).



Adierazleen laburpen bat egiten saiatuta, honako eskema hau daukagu:

| Aldagaia | Galdera |
|----------------------------|--|
| Etxebizitza | Gelak pertsonako. |
| | Etxebizitza bainu pribatuarekin. |
| | Etxebizitza gastuak, diru-sarreraren ehunekoarekin konparatuta. |
| Diru-sarrerak | Diru-sarrera garbia pertsonako (zergak kenduta). |
| | Ondare garbia familiako. |
| | Desparekotasuna: %20 aberatsenen diru-sarrera garbia %20 pobreenarekin alderatuta. |
| Lana | 15-64 urtekoen enplegu-tasa. |
| | 12 hilabete edo gehiago langabezian daraman biztanleriaren ehunekoa. |
| | Langabezia kasuan galdutako diru-sarreraren ehunekoa. |
| | Batezbesteko diru-sarrera per capita. |
| Komunitatea | Fidatzekoa den norbait ezagutzen duela dioen biztanleriaren ehunekoa. |
| Hezkuntza | Hezkuntza-urte kopurua, 5 eta 39 urte bitartean. |
| | Bigarren Hezkuntza amaitutako 25 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa. |
| | Ikasle baten PISAren batezbesteko emaitza (irakurketa, matematika eta zientziak). |
| Ingurumena | PM 2.5 maila (birikek har dezaketen partikula txikiak), $\mu\text{g}/\text{m}^3$ -tan. |
| | Uraren kalitatearekin pozik dagoen biztanleriaren ehunekoa. |
| Hiri-konpromisoa | Azken hauteskundeetan botoa emandako biztanleriaren ehunekoa. |
| | Gizarte-agenteen inplikazio maila tokiko legeak edo arauak egitean (otik 4ra). |
| Osasuna | Bizi-itxaropena. |
| | Osasuntsu dagoela dioen biztanleriaren ehunekoa. |
| Bizitzarekiko gogobetetzea | Bizitzarekiko norbere gogobetetze maila, otik 100era. |
| Segurtasuna | Gauetz oinez bakarrik ibiltzean seguru sentitzen den biztanleriaren ehunekoa. |
| | Hilketa-tasa (hilketak 100.000 biztanleko). |
| Lana-bizitza oreka | Astean 50 ordu baino gehiago lan egiten duten langileen ehunekoa. |
| | Zainketa pertsonalari eta jarduera ludiko-sozialei eskainitako ordu kopurua egunean. |

Sistema honen alderdi nabarmengarri batzuk honako hauek dira:

- Indizeak zuzentasun handiagoz aukeratzen ditu izaera objektiboagoa duten datuak –hala nola etxebizitza, diru-sarrerak, lana– izaera guztiz subjektiboak duten beste datu batzuk baino (batez ere komunitatea eta bizitzarekiko gogobetetasuna).
- Dimentsioen azterketan, modu objektiboan aitortzen baldin badugu gizarte batean desparekotasuna txikiagoa izateak gizarte horren ongizateari laguntzen diola, desparekotasunak berak dimentsio bat izan beharko luke, edo, bestela, modu transbertsalean aztertu beharko litzateke dimentsio guztietan.
- Oso zuzenak diruditen dimentsio batzuetan, lana-bizitza oreka adibidez, adierazle objektiboak aukeratzen dira, eta beharbada interesgarria izango litzateke galdera subjektiboren bat txertatzea; «oreka» kontzeptua azken batean «gogobetetasuna» bezain pertsonala baita. Nolanahi ere, dimentsio bakoitzak planteatzen dezake gogoeta bat, ea adierazle objektiboekin eta/edo subjektiboekin neurtu behar den.
- Osasun dimentsioari dagokionez, bizi-itxaropenaren adierazlea edo are bizi-itxaropen osasuntsuarena ere, osasun fisikoaren adierazle asebetegarria izan daitekeen arren, beharbada ongizatearen neurketa batean «alerta» adierazle batzuk ere kontuan hartu beharko dira (une jakin batean depresioa nozitzen duen populazioaren portzentajea, adibidez).
- Beste aukera bat da ongizatearen adierazle onargarritzat jotzea kolektibo jakin batean egindako neurketak, ez osotasunean egindakoak. Adibide zehatz bat jarzearren, segurtasunaren dimentsioan, non gauez seguru sentitzen den populazioaren portzentajea adierazgarria den, garrantzitsuagoa izan daiteke adierazlea emakumeen populazioaren neurketaren bidez aztertu ahal izatea eskusiboki.
- Azken hauteskundeetan botoa eman zuen populazioaren portzentajea ez da nahikoa konpromiso zibikoa neurtzeko, adierazlea zuzena den arren: adibidez, brexitaren erreferendumaren emaitza oso desberdina izan zitekeen, analisisien arabera behintzat, populazio gaztearen portzentaje handiago batek botoa eman izan balu. Dimentsio honetan, merezi du kolektibo gisa ditugun jokabideak neurtzea (asoziazionismo maila...) eta horiei buruz gogoeta egitea. *Oxfam Humankind Indexak* hurbilketa interesgarria egiten du, ikuspuntu horretatik begiratuta; aurrerago aurkeztuko da.

2.4. ONGIZATERAKO HURBILKETA EZ-EKONOMIKOA: GARAPEN SOZIALAREN INDIZEA

Aurrerabide sozialaren indizearen egilea Social Progress Imperative fundazioa da, AEBko zenbait fundaziok, Rockefeller Fundazioa horien artean, zuzendutako irabazi asmorik gabeko erakunde bat. Teknikoki, Michael Porter du buru. Herrialdeek herritarren premia sozialak eta ingurumenari dagozkionak nola asetzen dituzten neurtzen saiatzen da, aldagai ekonomikoak aintzat hartu gabe, populazio osoarentzat garrantzitsuak diren eta ekintzara eta erabaki politiko zein sozialak hartzera bideratuta dauden adierazleekin. Herrialdeen jarduera hiru dimentsio nagusitan batutako berrogeita hamalau adierazlerekin neurtzen da:

| Oinarrizko giza beharrak | Ongizatearen oinarriak | Aukerak |
|---|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> — Nutrizioa eta oinarrizko asistentzia medikoa — Ura eta saneamendua — Etxebizitza — Segurtasun pertsonala | <ul style="list-style-type: none"> — Oinarrizko ezagutzetarako aukera — Informaziorako eta komunikaziotarako aukera — Osasuna eta ongizatea — Ingurumenaren kalitatea | <ul style="list-style-type: none"> — Eskubide pertsonalak — Pertsonen eta Aukeratzeko askatasuna — Tolerantzia eta inklusioa — Goi-mailako hezkuntzarako sarbidea |
| Badu gizarte batek herritarren eta komunitateen bizi-kalitatea hobetzeko tresnak? | Gizarteak badu oinarri nahikorik, herritar eta komunitateei bizi-kalitatea mantentzen eta hobetzen laguntzeko? | Eskaintzen du gizarte batek ingurune egokia pertsonen bere ahalmen osoa garatu dezaten? |

Indizearen osaketak honako ezaugarri hauek ditu:

- Iturri ofizialak (Eurostat) eta ez-ofizialak (Gallup) uztartzen ditu.
- Datu objektiboak (haurren heriotza-tasa) eta subjektiboak (sistema politikoarekiko konfiantza) uztartzen ditu.


- Adierazleek ez dute urte bereko informazioa islatzen (2014: Desgaitasunak dituzten pertsonetikiko jarrerak; 2018-2011: Heriotza goiztiarrak) eta horien eguneratzeari buruzko ziurgabetasuna dago.
- Aldagaiak otik 100era normalizatzen dira (begi bistakoa kasu batzuetan, hala nola jaso gabeko hondakin-urak, baina ez hainbeste beste batzuetan, bizi-itxaropenarenean, adibidez), eta gehitu egiten dira azken indizea osatzeko.
- Europako kasuan, eskualde mailako informazio xehatua lortzen da. Eskualdekako banakapenak Europa mailako analisi konparatua egiteko aukera ematen du aztertukoaren antzeko eskualdeekin. Hurrengo estekan, Euskal Autonomia Erkidegoko emaitzak Europako antzeko beste eskualde batzuekin alderatuta: <https://www.socialprogressimperative.org/custom-indexes/europeanunion/?area=ES21>

2.5. ONGIZATEAREN DIMENTSIO KOLEKTIBO BAT: JUSTIZIA SOZIALAREN INDIZE EUOPARRA

Bertelsmann Fundazioak landua, justizia sozialaren indize europarrak Europar Batasuneko hogeita zortzi herrialdeen arteko konparazio bat ezartzen du sei dimentsiotan: pobrezia, prebentzioa, berdintasunezko hezkuntza, lan-merkatuak sarbidea, kohesio soziala eta diskriminaziorik eza, osasuna eta belaunaldien arteko justizia.

| Pobreziaren prebentzioa | Hezkuntza bidezkoa | Lan-merkaturako sarbidea | Kohesio soziala eta diskriminaziorik eza | Osasuna | Belaunaldiarteko justizia |
|--|---|--------------------------------------|---|---------------------------------|------------------------------------|
| Pobrezia edo gizarte-bazterketa arriskua | Hezkuntza-politika (kualitatiboa) | Lana | Gizareratze politika (kualitatiboa) | Osasun politika (kualitatiboa) | Familia politika (kualitatiboa) |
| Pobrezia edo gizarte-bazterkeria arriskuan (haurrak, hirugarren adina) | Ikasleen emaitzak eta profil sozioekonomikoak | Helduen enplegua | Gini koefizientea | Bete ez diren laguntza medikoak | Pentsio politika (kualitatiboa) |
| Etxebizitzetan bizi den populazioa, ia lanik gabe | Lehen Hezkuntza baino arinagoko Hezkuntza | Lana: atzerritarrak vs bertakoak | Politika ez-diskriminaziorik (kualitatiboa) | Bizi-itxaropen osasungarria | Ingurumen politika (kualitatiboa) |
| Gabezia material larria (populazio osoa, haurrak, hirugarren adina) | Eskola-uzte goiztiarra | Lana: emakumeak vs gizonezkoak | Genero-berdintasuna Parlamentuetan | Osasun-sistemaren emaitzak | GHG emisioak |
| | | Langabezia | Gizareratze politika (kualitatiboa) | Irisgarritasuna eta maila | Energia berriztagarriak |
| | | Iraupen luzeko langabezia | Niniak | | Gastua I+Gn |
| | | Gazteen langabezia | | | Zor publikoa |
| | | Kualifikazio baxuko langabezia | | | Hirugarren adinekoen mendekotasuna |
| | | Aldi baterako nahi gabeko langabezia | | | |
| | | Pobrezia lanarekin | | | |
| | | Ordainketa baxuak | | | |

Hurrengo grafikoan Espainiaren posizio erlatiboa erakusten da; gaur egun 25. postuan dago, aztertutako 28 herrialdeen artean.



Iturria: kalkulu propioak. BertelsmannStiftung.

Indize horri behatuta, ikusten dugu egoera soziala islatzen duten parametroak dituela, kasu honetan Espainiakoa. Beste adierazle batzuek, BPGd-arena adibidez, hazkundera erakusten badute ere, hemen argi adierazten dira hazkunde hori gizarte osora berdintasunez zabaltzea eragozten duten arazoak. Nabarmentzen diren parametroen artean, epe luzeko langabetuena dago, 2008an %2koa izatetik %11,5 kezkarri batera igoa 2016an. Bai eta gazte langabetuena ere (15 eta 24 urte bitartekoena), %48,3koa. Horri puntuazio kaskarreko beste adierazle batzuk batzen baldin badizkiogu, hala nola umeen pobrezia (%34,4) eta 20-24 urte arteko populazioan dagoen ninien, ez ikasi eta ez lanik egiten dutenen, tasa (%22,2), ez da etorkizun oparoa sumatzen justizia sozialari dagokionez Espainian.

2.6. ONGIZATERAKO BESTE HURBILKETA BAT: *OXFAM HUMANKIND INDEX*

Beste adierazle hau bere lanketa prozesuak berak dakarren berrikuntzarengatik aukeratu da. Indize hau osatzeko, ia 3.000 laguni egin zitzaizkien elkarrizketak Eskozian, hainbat bitarteko erabilia (inkesta sarean, talde fokalak, tailerrak komunitateekin), batez ere populazio baztertuen edo irismen zailekoen iritziak ere biltzeko, eta, horri esker, gizarte osoaren erakuskari adierazgarria izateko.

Elkarrizketatutako pertsonen nahiek erabakitzen dituzte azkenean, besteak beste, Craighead Institute, Northern Star eta New Economics Foundation erakundeen babesarekin batera, ongizatea definitzen duten lehentasun komunak, kasu honetan Eskoziako gizartearenak. Gisa horretan, *Better Life Indexean* ez bezala, azterketa-gai den populazioak berak erabakitzen ditu hala dimentsioak nola horietako bakoitzari eman nahi dion pisua. Aukeraketa prozesuari esker, horrenbestez, partekatzea merezi duten ondorioak atera daitezke. Aukeratutako dimentsioetan oinarrituta, indizeak populazioaren lehentasunak islatu ditzakeen informazio erabilgarria bilatzen du, eta gogoeta egiten du informazio horretaz, Eskoziako agintariak lan egitera gonbidatuz behar adina informazio ez dagoela irizten dioten alderdietarako eraginkorrakoak izango diren adierazleen bilaketan.

Aukeratutako lehentasunen eta adierazleen koadroa, garrantzitsuenetik garrantzi gutxienekorako hurrenkeran, honako hau da:

| Aldagaia | Pisu erlatiboa | Datu-iturria | Galdera | Neurketa |
|--|----------------|--|---|---|
| Etxebizitza eskuragarri, seguru eta itxurazkoa | 11 | Eskoziako etxeetako galdetegia (2 galdera) | Pozik zaude zure etxebizitzarekin? | “Oso pozik” daudenen ehunekoa |
| Osasun fisikoa eta mentala | 11 | Eskoziako etxeetako galdetegia | Definitu zure osasun-egoera | “Oso ona/Ona” erantzundakoen ehunekoa |
| Auzoa/hurbileko ingurua | 9 | Eskoziako etxeetako galdetegia | Uste duzu inguru atseginean bizi zarela? | “Bai” erantzundakoen ehunekoa |
| Lan gogobetegarria (ordaindua ala ez-ordaindua) | 7 | Eskoziako jarrera sozialei buruzko galdetegia | Pozik zaude zure lanarekin? | “Bai” erantzun dutenen ehunekoa (ez da galdetuko ordaindutakoa den ala ez) |
| <i>Harreman ona senide eta lagunekin</i> | 7 | Eskualdeko lan-merkatuaren estatistikak | Asteko lanorduen batezbestekoa vs asteko 40 lanorduak | 40 orduen eta asteko batezbesteko orduen arteko aldea. Zenbat eta gutxiago lan egin, orduan eta denbora gehiago familiarekin eta lagunekin egoteko. Onartu dute ez dela neurri egokia, eta SHSan estilo honetako galderak gehitzeko eskatu dute |
| Norbere eta hurbilekoen segurtasuna | 6 | Eskoziako etxebizitzetako galdetegia | Inguru seguruan bizi zarela uste duzu? | “Bai” erantzundakoen ehunekoa |
| Inguru berde, inguru komunal eta jolas eremuetarako sarbidea | 6 | Eskoziako etxebizitzetako galdetegia (2 galdera) | Zure auzoan aisialdirako nahikoa eremu daude? Eremu natural batetik gertu bizi zara? | Bi erantzunetan “Bai” esandakoen batezbestekoa |
| <i>Lan seguru eta egokia</i> | 6 | Urteko populazioaren galdetegiko estatistikak | Langabeen ehunekoa | Segurtasuna eta lanaren egokitasuna ez neurtzea azpimarratu du |

| Aldagaia | Pisu erlatiboa | Datu-iturria | Galdera | Neurketa |
|--|----------------|--|--|---|
| Dirua izatea, fakturak ordaintzeko eta beharrezkoa dena erosteko | 6 | Eskoziako etxebizitzetako galdetegia | Nolako egoera ekonomikoa bizi da etxean? | “Oso ona” erantzun dutenen ehunekoa |
| <i>Segurtasun finantzarioa</i> | 5 | Urteko populazioaren galdetegiko estatistikak | Langabeen ehunekoa, aurreko urtearekin alderatuta | Langabezia altuagoa bada, indizea negatiboa izango da |
| Kultura/zaletasunak | 5 | Eskoziako etxebizitzetako galdetegia (2 galdera) | Kirol-jarduerarik egiten duzu? Kultura-jarduerarik egiten duzu? | Bietan “Bai” erantzun dutenen batezbestekoa |
| Tokiko azpiegiturak | 4 | Eskoziako etxebizitzetako galdetegia | Zerbitzu onak ditu zure auzoak? | “Bai” erantzun dutenen ehunekoa |
| Trebeziak eta hezkuntza | 4 | Urteko populazioaren galdetegiko estatistikak | Gradu titulazioaren eta/edo titulazio profesionalen bat duen populazioaren proportzioa | “Bai” erantzun dutenen ehunekoa |
| Komunitate izaera | 4 | Eskoziako etxebizitzetako galdetegia | Uste duzu zure auzoak komunitate izaera duela eta jende atsegina bizi dela? | “Bai” erantzundakoen ehunekoa |
| Garraio publiko ona | 4 | Eskoziako etxebizitzetako galdetegia (2 galdera) | Asebetetze-maila garraio-zerbitzuekin | Oso pozik eta nahiko pozik |
| Zerbitzu publiko onak | 3 | Eskoziako etxebizitzetako galdetegia | Pozik zerbitzu guztiekin (tokiko eskolak, garraioak, osasun-zerbitzuak) | Oso pozik eta nahiko pozik |
| <i>Tolerantzia</i> | 3 | Eskoziako gizarte-jarrerari buruzko galdetegia | Uste duzu Eskoziak aurreiritzi guztiak atzean utzi beharko lituzkeela? | “Bai” erantzundakoen ehunekoa |
| Ongi sentitu | 2 | Eskoziako etxebizitzetako galdetegia | Esan, orokorrean, zure gogobetetasun-maila zein den, 1etik 10era | 7 edo 7tik gorako balioa duten erantzunen % |

Lehen gogoeta dimentsio bakoitzari emandako pisuari buruzkoa da, horrek erakusten duelako nola definitzen duen ongizate soziala Eskoziako populazioak, hiru dimentsio nagusi markatuta garrantzitsuenetik garrantzi gutxienerako hurrenkeran:

- Lehena, pisu handienekoa, etxebizitza itxurazko, seguru eta ekonomikoki eskuragarri bat izatearekin definitzen du, eta, beste alde batetik, osasun fisiko zein mental ona.
- Bigarrena aire zabalean egindako jardueraz gozatzeko aukera ematen duen auzo batean bizitzeaz mintzo da, inguru garbi eta osasungarrian.
- Eta hirugarrena, lan gogobetegarri bat izateaz (ordaindua izan zein ez), familiarekin eta lagunekiko harreman onez, eta norberarentzako eta zein gertukoentzako segurtasunaz.

Populazioak aukeratutako pisua aztertuta, honako hau ikusten dugu:

- Faktore lokalek eta gertuko inguruak dute pisurik erabakigarriena, adierazle osoaren %35.
- Alderdi ekonomikoek pisu erlatibo murriztagoa dute, %22, eta agerian dago irabazitako diru kopurua baino garrantzitsuagoa dela nahikoa baliabide ematen duen eta segurua den lan baten beharra.
- Garrantzi handiagoa ematen zaio lana gogobetegarria izateari ordaindua izateari edo ez izateari baino (aukeratutako adierazleak ez du alderdi honetan bereizketarik egiteko aukera ematen).

Erabilitako dimentsioei dagokienez, ikusten da askoz ere pisu handiagoa dutela, *Better Life Index*arekin alderatuta, adierazle subjektiboek. Adierazleak aukeratzen dituztenen ikuspuntutik begiratuta, horiek islatu ditzakete ondoen gizartearen lehentasunak. Hala ere, zenbait dimentsiotan adierazle egokirik ez dagoela ere baieztatzen dute (hasierako taulan *letra etzanaz* nabarmendutakoak):

- Harreman onak familiarekin eta lagunekin: honi buruzko adierazlerik eza aitortzen dute, eta denboraren aldagaia neurtzearen aldeko hautua egiten dute, pentsatuz zenbat eta denbora libre gehiago izan, handiagoa dela

«Komunen» kudeaketarako hurbilketa teorikoa:

Elinor Ostrom, *El gobierno de los bienes comunes*.

[http://www.pabloabitbol.com/\(NEP\)_files/14.1.%20Ostrom%20El%20gobierno%20de%20los%20bienes%20comunes%201.pdf](http://www.pabloabitbol.com/(NEP)_files/14.1.%20Ostrom%20El%20gobierno%20de%20los%20bienes%20comunes%201.pdf)

familiarekin eta lagunekin egoteko prestasuna. Familia eskoziarrei buruzko inkestari dimentsio honi buruzko galdera espezifikoa jasotzeko eskatzen diote.

- Lan seguru eta egokia: aukeratutako adierazlea ohikoa da, lana daukan populazioaren portzentajea, eta nabarmentzen dute ez dutela aurkitu lan hori egokia ote den dioen adierazlerik, ezta espezifikoki lan horretan seguru sentitzen ote diren dioenik ere.
- Segurtasun finantzarioa: informazioa ez dela nahikoa nabarmentzen dute hemen ere. Kasu honetan, urte bateko langabe-populazioaren ehunekoa aurreko urtekoarekin alderatzearen aldeko hautua egiten dute. Portzentajea handiagoa baldin bada, balioak zeinu negatiboa du, eta adierazlearen gutzitza behera egiten du.
- Tolerantzia: Eskoziak aurreiritzi guztietatik askatu beharko ote lukeen dioen galderari emandako baiezkoen portzentajea darabilte adierazle gisa, baina aitortzen dute gehiago sakondu behar dela gai honetan, adierazle zehatzagoak erabilia.

Beste kontu aipagarri bat da ongizatearen definizio propio bat denez, beste herrialde eta kolektibo batzuekiko konparazioek ez dutela garrantzi handirik; bai, ordea, emaitzak denboran zehar konparatzeak, edo populazioaren sektoreen arteko konparazioek (genero desberdintasunak, besteak baino pobregokoak diren populazioak...).

3. Hitz egiten eta sakontzen jarraitzeko gaiak

Aurreko kapituluan ikusi den moduan, ongizate sozialaren neurketarako hurbilketak askotarikoak dira, eta adierazle bakoitzetik atera daitezke baliozko ideiak bezala alderdi kritikagarriak. Horregatik, azken kapitulu honetan funtsezko bi gairi buruz gogoeta egitea erabaki dugu, jabetuta une oro adierazleen aukeraketa partziala dela eta beste adierazle asko daudela iritzi publikoarentzat erabilgarri.

- Zer dimentsio beharrezko dauden jasota arestian erakutsitako adierazleetan, oharrek eginez ondorioetatik abiatuta ekintzei ekiteko eta ongizatea hobetzeko lehentasunak identifikatzeko.
- Zer dimentsio beharrezko ez diren behar bezain ondo islatuta gelditu eta, aldi berean, gure ikuspuntutik begiratuta, ongizate sozialaren definizioaren parte izan behar duten, ongizate soziala pertsona guztiei bizitzeko merezi duen bizitza bat bizitzeko aukera ematen diena dela ulertuta.

Lehen kasuan, gogoetak dilema moduan aurkeztuta daude, ongizatearen definizioan berean ekarpena egiteko; definizio horrek, aldi berean, eragina izango du adierazleen lehentasunak erabakitzean, bai eta adierazle horietan neurtzen diren dimentsioetan ere.

3.1. BEHAR ADINA ISLATUTAKO DIMENTSIOAK

a) Indibidua, kolektiboaren aurrean.

Adierazle gehienek modu indibidualean hartzen dituzte aintzat pertsonak, eta ez dute analisirik egiten haiek kolektiboetan sartuta (kolektibo horiek izan

litezke txikiak, hala nola familia bat, edo handiagoak). Ondorioz, pertsonoi modu kolektiboan eragin diezaguketan alderdiak (klima-aldaketa, ustelkeria baliabide erabilgarrien murrizketaren eragile moduan...) gutxietsi egiten dira.

Beharrezkoa da, horrenbestez, gogoeta bat ongizate kolektiboaren adierazle gehiago erabiltzeko. Ez dago ongizateari buruzko emaitza indibidual jasangarririk, horiei eutsiko dien egitura instituzional eta kolektiborik gabe (adibidez, maila globaleko zein lokaleko babes sozialeko sistemak). Justizia sozialaren indizeak aukeraketa ona egiten du, ikuspuntu horretatik begiratuta, baina mota horretako adierazleek gaur egun iritzi publikoaren osaketan duten pisua oso apala da, eta, horrenbestez, oso eragin txikia dute aldaketa politikak zuzentzeko edo motibatzeko.

Beharrezkoa da, halaber, kolektiboaren balioaz, gogoeta egitea, ondasun komunen balioaz, hala duen berezko balioarengatik nola ongizateko helburu pertsonalak lortzea ahalbidetzeko eta errazteko duen ahalmenarengatik. Ikuspuntu horretatik begiratuta, oso interesgarria da ohartzea zer pisu ematen zaion «gertuko inguruari» (ondasun komun bat, kolektiboarena) populazio eskoziarrak *Oxfam Humankind Indexaren* bidez egiten duen ongizatearen definizioan.

b) Ezarritakoa pertsonen landutakoaren aurrean.

AEBko aberastasunaren banaketari buruz, adibide gisa:
<https://www.youtube.com/watch?v=gcnu94tS9x8>

Aurreko atalarekin lotuta, herritarrek ongizatearen definizioan parte hartzeak, hala aintzat hartu beharreko aldagaiak aukeratzean nola horien arteko lehentasunak ezartzean, indizearen eta haren adierazleen eraginkortasuna handiagoa

izatea ekarriko du, iritzi publikoa harberagoa agertuko delako eta erabaki politikoan eragina izateko aukera handiagoa izango duelako.

Interesgarriak dira, jakina, beharrezko aldagaiak izango dituen indize onena osatzeko ahalegin teknikoak. Baina beharrezko aldagai guztiak sartzeak konplexutasuna eranstean du eta litekeena da horrek, horrenbestez, adierazleak erabaki politikoak hartzen laguntzeko tresna gisa duen eraginkortasuna murriztea.

Bestalde, indize bat modu estandarrean definituta dagoen neurrian, herrialdeen arteko konparazioak egin ahal izango dira, ikasbideak edo nork bere buruari begiratzeko ispiluak aurkitzeko lagungarri izan daitezkeenak. Baina,aldi berean,

beharbada konparazio horiek ez dira hain garrantzitsuak, eta gizarte bakoitzak parte hartzen baldin badu ongizatearen definizioan, funtsezkoak izan daitezkeen desberdintasunak izango dira. Ez behar bada edukietan (osasuna, segurtasuna...), baina bai dimentsio batzuei eta besteei emandako lehentasunetan, bai eta gogobetetasunaren definizio subjektiboan ere (adibidez, lan gogobetegarriaren definizioa gizarte bakoitzean, aldagai kolektiboen garrantzia aldagai indibidualen aurrean, ongizatearen definizioa...).

c) Materiala materiagabearen aurrean.

Ikusi ditugun lehen adierazleak helburu materialen lorpenean zentratzen dira, beharrezkoak ongizateaz gozatzeko (osasuna, gutxieneko baldintza ekonomikoak, hezkuntzarako sarbidea...), pentsatuz baldintza material horiek izandakoan pertsona bakoitza bere ongizatea aurkitzeko gauza dela.

Baina *Oxfam Humankind Indexari* (OHI) behatuz, ikusten ditugu, lehenik, sail material batzuk, etxebizitza eskuragarri eta gogobetegarriarena, osasun fisiko zein mentalarena, pisu garrantzitsua dutenak. Baina, hortik aurrera, populazioak aukeratzen du ongizatearen bere definizioa beste adierazle batzuetan (gertuko inguru atsegina, txukuna eta gozatzeko aukera ematen duena, hala bakarka nola lagunduta), gehienbat kontzeptu «materiagabeei» erreferentzia egiten dieten aldagaiak dituzten adierazleetan.

d) Batezbestekoa/balio absolutuak, banaketan/desparekotasunen aurrean.

Iritzi publikoari komunikatzen zaizkion eta iritzi hori osatzen duten gaur egungo adierazle gehienek balio absolutuan (BPGd, errenta...) edo batezbestekoa (per capita errenta edo bizi-itzaropena) jartzen dute fokua, eta ez banaketan, eta, horrenbestez, ez dira neurri egokiak edo, behintzat, ez dira nahikoa ongizatea neurtzeko.

Ondorioz, denboran zeharko bilakaera neurtzen denean ere ongizatearen hazkundera dagoela esaten da balio absolutuak hazkundera baldin badu. Beharrezkoa da adierazleek balioen banaketaz hitz egin dezaten, xehetasunez jakin dezagun nork irabazten duen eta nork galtzen, gizarteak galera absolutuak dituzten kolektiboak kudeatu ahal izan ditzan.

Ikuspuntu horretatik begiratuta, gaur egun argi frogatuta dago adierazleen informazioa ez dela nahikoa. Babes sozial handiko aukera populistak eta ezker

zein eskuin muturrekoak sortu izanak ongizate galera etengabeak nozitzen ari diren kolektibo zabalak daudela islatzen du, nahiz eta «gizarte osoaren» ongizatea gora egiten ari. Gaur egungo adierazleak ez dira egoera horiek aurreikusteko gauza izan.

Kontu honek gogoetarako eta berehalako ekintzarako gai izan behar du hala agintari politikoentzat nola adierazleak ekoizten dituzten erakundeentzat. Neurketak egiten dira eta datuak daude: informazioa osatzeko dugun moduak eta informazio horrekin komunikatzen dugunak ongizatearen ikuspegi jakin bat adierazten dute. Datuen aurkezpenean aldaketa bat, banaketan gehiago sakonduta, kolektiborik zaugarrienetan..., ia-ia berehala egin daitekeen ekintza bat da; borondate politikoa baino ez da behar.

e) Parametro objektiboak parametro subjektiboen aurrean.

Azkenik, eta indize guztien behaketa orokorraren bidez, honako hau nabarmendu dezakegu:

- Adierazle objektiboek konparatzeko balio dute, eta motibatzaile politikoak izan daitezke. Adibide bat dira Nazio Batuek ezarritako Milurtekoko Garapenaren Helburuak (MGH), herrialdeen arteko jarraipenarekin; horren hobekuntzak etekin politikoa du, eta bultza ditzake adierazle horiek hobetzeko erabakiak eta ekintza politikoak.
- Neurketa subjektiboak beharrezkoak dira ongizatearen hautematea pertsoneri berei galdetutako informazio zuzenaren bidez osatzeko. Aurkeztutako ikuspegi gehienek, hala alderdirik «zientifikoenean», *Better Life Indexen* adibidez, nola OHiko parte-hartzaileagoan, mota honetako galderak bilatzen dituzte ongizatearen definizioa osatzeko. Azken kasu horretan, are agintariei gomendioak ere egiten dizkiete ikuspegi osoagoa izateko modu iteratiboan jaso behar diren galdera subjektibo berriei buruz.

NBE albiste-zentroa, «Garapen jasangarriko helburuak».
<http://www.un.org/spanish/News/story.asp?NewsID=34141#.WUGl83lPquU>

3.2. BEHAR ADINA ISLATU GABEKO DIMENTSIOAK

Ondoren, adierazleen aukeraketa partziala izan dela jakinagatik ere, ongizatearen definizio (eta, horrenbestez, neurketa) zuzen baterako beharrezkotzat ditugun

alderdi batzuk islatuko ditugu, lehentasunez iritzi publikoan presentzia handiagoa izan behar dutenak, bai eta eragin handiagoa erabaki politikoetan ere.

a) Lanak eta ordainik gabeko jarduerak.

Hasierako ohar bat berreskuratzen dugu: neurtzen ez dena ez da aintzat hartzen. Eta ikuspuntu horretatik eragin behar da ongizatearen neurketa osoagoa lortzeko. Aurreko atalean zehar adierazle asko ikusi ditugu, batzuk beste batzuk baino ekonomizistagoak, aldagai sozial edo kolektibo gehiago har ditzaketenak aintzat. Baina ia-ia kasu bakar batean ere ez zaio erreferentziarik egiten pertsonak gizartearen ongizateari inolako isla ekonomikorik gabe egindako ekarpenei, gehienbat emakumeen populazioak egindako ekarpenak: adibidez, mendekotasuna duten pertsonen zaintza (haurren populazioa eta hirugarren adina batez ere, eta beren eguneroko bizitzarako mendeko bihurtutako beste pertsona batzuk). Neurri txikiagoan, pertsonak GKEekin, kultur eta kirol elkarteekin eta abarrekin kolaboratuz egin ditzaketen lan «boluntarioak» izango genituzke.

Inork ez luke ukatuko jarduera horiek pertsonen eta gizarte osoaren ongizaterako lagun-garri direla, baina ez dirudi iritzi publikoaren osaketan edo erabaki politikoak hartzean islatuta geratzen direnik. Uste dugu horrek izan behar duela aldaketa nagusietako bat ongizatea neurtu eta definitzerakoan: aintzat hartzea beharrezkoak diren jarduera guztiak, diruz ordainduak bezala ordaindu gabeak. Iritzi publiko gisa, ez gara jabetzen eta ez dugu informaziorik murrizketa sozialek nolako eragina izan duten jarduerara «ez ordaindu» horiek 2007-2008 urteetan krisia hasi zenez geroztik izandako hazkundean; eta pertsonen ongizateari eragiten dioten jarduerak dira (hala zerbitzu soziala jasotzeari utzi diotenei nola hori «ordainik gabe» onartu behar izan dutenei).

Laburbilduz, ongizatearen definizio integral bat osatzeko helburua duen edozein neurketak, ongizateari ekarpena egiten dioten ordaindu gabeko lan eta jardueren bolumena neurtu beharko du, honako hauetarako ere baliagarri izateko moduan gainera:

Sakontzeko:

M^a Á. Durán, *El trabajo no remunerado en la economía global*

http://www.fbbva.es/TLFU/dat/DE_2012_trabajo_no_remunerado.pdf

A. Pérez Orozco, *Subversión feminista de la economía: Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*

https://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/map40_subversion_feminista.pdf

- gogoeta egin dadila ongizatearen Estatuak eta gizarteak etorkizunean jarduera horiek antolatu nahi dituzten moduari buruz, eta ekitate printzipio baten arabera ordaindu beharko lirakekeen moduz.
- une desberdinetan egindako neurketak zehaztu ahal izan dezala erabaki politikoaren eragina (arestian aipatutako murrizketa sozialen adibidea, edo Mendekotasunaren Legearen ez betetzea).

Gainera, «ifrentzuari» begiratzen baldin badiogu, hau da, jarduera horiek egiten dituzten gizarteko pertsona guztien «ondozari» (edo sakrifizioari), faktore beharrezko bat gaineratuko dugu erabaki politikoak hartzean kolektibo horiek aintzat hartuak izan daitezten. Adibide batekin esanda: gaur egungo jaiotza-tasak, espezie gisa dugun ugaltzeko ahalmenaren oso azpian kokatuak, lan ez-ordaindu horien ondorio dira neurri handi batean, bai eta gizartean zein familian ugaltze-lanak duen banaketa argiki parekotasunik gabekoan ere.

Horrez gain, eta erantsitako eragin perbertso gisa, aipa daiteke lan horiek egiten diren unean ordainduak ez izateaz gain, gaur egungo Estatuak ez duela etorkizunerako inolako ordainik aurreikusten horientzat, eta lan ordainduak, aldiz, pentsiorako eskubidea ematen dutela; horrek are gehiago eragiten die pertsona horiek guztiek hirugarren adinera heltzen direnean izango duten ongizate ahalmenari.

b) Generoa.

Dokumentu osoan dimentsio askori buruzko adierazleak aurkitzen baldin baditugu ere, aitortu behar dugu ahalmen ekonomikoaren pisua, batetik, eta enplegu ordainduaren faktoreak, bestetik, eragin erabakigarria dutela ongizatearen emaitzan, hori neurtzeko gaur egun ditugun moduak erabilia. Ondorioz, zeharka, enplegu ordaindua duen populazio helduari –generoen arteko bereizketarik gabe– lotuegia dagoen ongizatearen neurketa daukagu.

Logikoa denez, gizartea ez dute enplegua duten pertsona helduek soilik osatzen. Horregatik, eta berriro ere ongizatearen definizio integral baten bila, beste aldagai batzuk txertatu behar dira gutxienez, transbertsalak eta aukeratzen den edozein adierazletan analizatzekoak:

- Adierazleen balioak pertsonen adinaren arabera, aintzat hartuta gutxienez haurtzarora, eta bigarren eta hirugarren adinak.

- Neurtu nahi den gizartean berenezaugarri sozioekonomiko edo kulturalengatik arazo espezifikoak, gizarte osoak dituenak ez bezalakoak, dituzten multzoak dauden neurrian, aintzat hartu beharko dira, ongizatearen adierazleek ez dezaten lan egin, gutxiengoak baztertua, «gehiengoarentzat» soilik.
- Adierazlearen balioak generoari dagokionez.

Bere garrantziarengatik, populazioaren erdiari eragiten baitio, generoaren aldagaia nabarmentzen dugu lehenik. Gizarte ia guztietan, emakumeak gizonezkoak baino eskubide eta aukera gutxiagoko egoera historiko batetik datoz. Alderdi batzuetan aurrera egin baldin badute ere, hala nola eskubide politikoetan, hezkuntzarako sarbidean eta abarretan, estali gabeko beste alderdi asko geratzen dira. Horregatik, eta ongizateatzat pertsona orok bere bizitza-plana definitu eta gauzatu ahal izatea jotzen baldin badugu, eta, horrenbestez, bizitza merezi duen bizitza bat lortzea, ongizatearen edozein adierazle hala multzo osoarentzat nola emakumeen populazioarentzat eta gizonezkoen populazioarentzat bereizita neurtu behar da.

Sakontzeko:

Sandra Ezquerria, «Crisis de los cuidados y crisis sistémica: la reproducción como pilar de la economía llamada real».

<http://revistas.ucm.es/index.php/INFE/article/viewFile/38610/37335>

Yayo Herrero (2016), «La crisis de los cuidados en el capitalismo global» (elkarrizketa).

<https://www.youtube.com/watch?v=78409OrNEc&feature=youtu.be>

Neurketa espezifikoak sartu edo adierazle berriak txertatu behar direneko adibide batzuk:

- Ongizatearen analisirako adierazle ohikoenetako bat familien errenta erabilgarria da. Ez da hitz egiten errenta hori familian banatuta dagoen moduaz, zenbat den emakumearena eta zenbat gizonarena, horrek dituen ondorioekin (familia batek errenta erabilgarri altua izan dezake, baina guztia gizonak kontrolatzen baldin badu, emakumearen egoera, zehazki, adierazleak globalki familiarentzat islatzen duena baino askoz okerragoa izan daiteke, ongizateari dagokionez; egoera hori ezkutuan utzita, horrenbestez).
- Aurreko atalean esan den bezala, gizartearen ongizateari laguntzen dion ordaindu gabeko lana txertatu eta ageriko egin

Fernando Prats, Yayo Herrero eta Alicia Torrego, *La gran encrucijada: Sobre la crisis ecosocial y el cambio de ciclo histórico* (laburpena).

http://blogs.fuhem.es/forotransiciones/wp-content/uploads/sites/51/2017/04/Resumen_COLOR_web.pdf

behar da, gehienbat emakumeen populazioak egina baita. Dagoeneko eginda dauden denboraren erabilerari buruzko inkestak hasiera egokia dira, eta jarraipen handiagoa izan behar dute, bai eta erakundeen politika sozialak definitzen lagunduko duten adierazleen parte izan ere.

- Gizarteko erabakiguneetan, erakunde politiko eta sozialetan, enpresetan, unibertsitateetan... gizonezkoen eta emakumeen populazioen artean dagoen banaketari buruzko adierazleak ere txertatu behar dira. Emakumeek erabaki prozesuetan duten parte-hartzea handitzen den neurrian, erabaki horiek emakumeen populazioaren egoerak aintzat hartzeko joera handiagoa izango dute.
- Aintzat hartu behar da umeak izateak emakumeen populazioan eta gizonezkoen populazioan duen eragina (mugak aukera profesioaletan, eragina eguneroko denboraren erabileran...), adierazle honen denboran zeharko bilakaerak banaketa bidezko batera eraman dezan.

c) Indibiduo independentearen kontzepzioa dependente/interdependentearen aurrean.

Edozein analisi egitean funtsezko aldagaitzat jo behar den bigarren faktorea adina da. Berriro ere, adierazleen definizioak eta alderdi ekonomikoaren pisuak gehiago zentratzen dute arreta populazio helduan.

Modu indibidualean pentsatzen baldin badugu, bizitzan zehar uniformeak izan daitezkeen premia materialetatik harago, denok ados egongo gara esaten badugu ongizatearen definizioa aldatu egiten dela bizitza-unearen arabera. Ondorioz, hori islatu egin beharko litzateke neurketan, seguru asko kolektiboaren adinaren araberrako adierazle espezifikoak txertatuz.

Haurtzaroaren kasuan, baieztatu daiteke gizarte gisa oso ezezaguna zaigula haren egoera, alde batera utziz gero haurren populazioa eskolaratuta dagoen ala ez, haurren heriotza-tasaren indizea, eta pobrezia zein bazterketa soziala noitzeko arriskuan dagoen haurren populazioaren portzentajeari buruzko adierazle bat. Haurren populazioa izango denez hurrengo populazio heldua, ongizatearen adierazleak bilatu behar ditugu, neurtzeko, besteak beste, ezagutzarako sarbiderako aukeren berdintasuna, semeen eta alaben hezkuntza urteen hazkundera edo murrizketa haien gurasoekin alderatuta, alderdi emozionalak (segurtasuna, nor bere buruarekiko konfiantza...) eta gisako alderdiak.

Hirugarren adinaren kasuan, osasuna, modu autonomoan bizitzeko aukera barne dela, gakoa da, jakina. Baina, osasun fisikoari lotuta, bada adierazle garrantzitsu bat, neurtzen zaila seguru asko: parte-hartzea gizartean. Kontua da eragozteko pertsona hauek baztertua eta bakarrik senti daitezen (gero eta arazo larriagoa gizarte garatuetan, bizi-itxaropen handiegiaren ondorioz, bai eta familia-nukleoak txikiagoak eta sakabanatuagoak izatearen ondorioz ere).

Bi kasuetan adierazleak garatzeko premia hautematen dugu.

Azken gogoeta bat gai honetaz. Espezie gisa, gizakiak mendekotasun osoko etapa du hasieran, eta horretan ez da bere kabuz bizitzeko gai (hain zuzen ere, akonpainamendu luzeena behar duen animalia-espezia da); eta bizitzaren amaiera aldean, beste horrenbeste gertatuko zaio seguru asko. Horrenbestez, ongizatea neurtzean, etapa horiek aintzat hartu behar ditugu, eta neurtu eta definitu nola ari garen horietaz arduratzen eta nola arduratu nahi dugun gizarte gisa. Gaur egun, gizarte gehienek onartzen dute Estatuaren babes behar dela bizitzaren azken zatian (pentsioak –baina lan ordainduak egin dituztenen aldeko diskriminazio argi batekin– eta osasuna), baina ez dago hain argi, aldiz, babes hori hasierako etapan: osasuna eta hezkuntza publikoki estali behar direla onartzen da, baina premia materialen ardura familien esku geratzen da nagusiki. Lan ez-ordaindua eta haren bilakaera ongizatearen definizioan txertatzeak ongizatearen Estatuaren lehentasun sozialei buruzko erabaki informatuagoa hartzen lagunduko luke, aurrez esandako gutzia kontuan hartuta.

d) Gehiengoa gutxiengoaren aurrean.

Berriro ere, adierazleak komunikatzerakoan, neurketa orokorrekin, batezbestekoekin edo populazio osoaren gaineko balioekin egiten da, eta horrek egoera kontraesankorrek edo konformismora eraman dezaketenak sor ditzake: baliteke batezbesteko BPGd haztea, baina baita pobrezia mailaren azpitik dauden pertsonen portzentajea ere; langabezia-tasa globala jaitsi egin daiteke, gazteen langabeziak eta epe luzeko langabetuen kopuruak hazkundera duten aldi berean.

Horregatik, ongizatearen neurketa integrala egingo bada, gizarte bakoitzak ahalegin bat egin behar du analizatzeko zer gutxiengo dituen, eta neurketak egin kolektibo horiei buruz, ahalegin politiko/sozial berarekin onura sozial handiagoa lor baitezake. Kolektiboen definizioa izan daiteke:

- Kausa sozioekonomikoengatik (guraso bakarreko familiak, epe luzeko langabeak dituzten familiak...).
- Kausa kulturalengatik, jatorriari dagozkionak (etorkinen kolektiboak, LGBT kolektiboa...).
- Desgaitasunak dituzten pertsonen kolektiboak (fisikoak, psikikoak, gaixotasun arraroak dituzten pertsonak...).

Kolektibo horiek beren ezaugarriekin ageriko egitea, haietan zentratutako ongizate-neurketak eskuratuta, da lehen neurri beharrezkoa, kolektibo horiek osatzen dituzten pertsonentzako aukera-berdintasunerako lagungarri izan daitezkeen ekintzak identifikatzeko, horri esker beren bizitza-plana diseinatu eta gauzatu ahal izan dezaten populazioaren «gehiengoaren» maila berean. Lehen ere esan den moduan, horiek zer kolektibo diren aldatu egingo da, azken finean, neurtzen den gizartearen osaketaren arabera.

e) Oraina etorkizunaren aurrean.

Azkenik, nabarmendu beharrezkoa da ia beti ahaztuta geratzen den beste alderdi bat: ongizatearen jasangarritasuna, gaur egun Lurrean bizi den populazioaren ongizatea etorkizuneko belaunaldien ongizaterako aukerak mugatzen edo kaltetzen ez dela ari ziurtatzea.

Bada lehen alderdi bat, gaur egungo gizarteak ingurumenean duen eraginari buruzkoa, kontuan hartzen hasi dena populazioan eragin argiak dituelako (adibidez, hirietako airearen kutsadura) eta frogatuta dagoelako ingurumen hobe batek ongizatearen beste alderdi batzuekin duen lotura, osasunarekin adibidez. Badira dagoeneko airearen kalitatea, gertuko inguruan espazio berdeetarako sarbidea izatea eta gisako faktoreak barneratzen dituzten adierazleak. Hala ere, beste pauso bat eman behar da jasangarritasunean:

- Orainean, garatuak deritzen gizarteek egiten duten baliabide naturalen kontsumoa gehiegizkoa delako, eta, horrenbestez, ez litzatekeelako munduko gainerako populazioetara esportagarri, eta populazio horiek bizitza eredu horretara iristeko helburua dute askotan.
- Etorkizunerako, hau da, gizarteak egindako baliabide naturalen kontsumoak ez ditzala etorkizuneko aukerak mugatu, ez baliabide fosiletan, mugatuak

definizioz, eta ez berritzen direnetan, naturaren berritze-tasaren beraren azpitik kontsumituta (arrantza-baliabideak, zura, ur edangarria...).

Aldagai hau ongizatearen neurketetan txertatu behar da, eta beste adierazle batzuei buruzko gogoetarako abiapuntu bihurtu. Bizi-mailari biztanleko energia-kontsumo gutxiagoz eusteko gai baldin bagara, eta are hobeto baliabide berriztagarrietatik eratorritako energiaren portzentajea handitzen baldin badugu, ongizateari ekarpen positiboa egiten ariko gara, baina kontsumoaren murrizketa BPGd murriztago batean islatuko da, ez baita hainbeste energia «ekoitzi» beharko. Ikuspuntu horretatik begiratuta, jasangarritasun adierazle onak izatea funtsezkoa izan daiteke baliabide murrizteko inguru batean populazioaren ongizatea hobetu dezaketen formulak aurkitzeko.

Beraz, ongizatearen kontzepzio integral baterako, adierazle berriak txertatzeko lan egin behar da. Dena den, adierazlerik klasikoek, ongizatearen neurketa globalerako nahikoa ez direla jakinda ere, informazio xehatua daukate, eta lagungarri izan daitezke, ondorioak ateratzeko batezbestekotik edo datu absolutu soiletik harago jotzen baldin badugu. Aurkezpen modua alda daiteke oraintxe, edo barruko dimentsioak, datuak ezagutzen baitira, eta muga bakarra egiteko borondate politikoa baita.

Eztabaida hau plazaratu egin behar da, eta herritarrengana eraman, hedabide-etara, unibertsitateetara, diskurtso politikora..., gizartearen arrakasta BPGd-aren hazkundearen eta langabeziaren (langabetu kopuruaren) jaitsieraren bidez neur-tzearena gaingintzeko. Ez aldatzearen aldeko aukera egiteak askoz kostu handia-go du huts egin eta ikasten joateak baino: hobe pixkanaka ibiltzea desiratutako bidean aurrera, oker gaudelako ziurtasuna izatea baino.

«Utopia ostertzean dago.
Bi pauso ematen ditut, hura bi pauso urruntzen da
eta ostertza hamar pauso harago doa.
Hortaz, zertarako balio du utopiak?
Horretarako, ibiltzeko balio du».

Eduardo Galeano

